

# BERRIGARA

90. zenbakia JARDUN Elkarteak, Bergara 1997, irailak 12

## Japoniarrak danborradan



Talleres Meca, Bergarako Renault kontzesionarioa

**Meca**



**RENAULT**

San Andres auzoa • Tf. 79 50 12 / 79 59 99 • ARRASATE





ESKOLARA  
BERRIRO!

97-98

## IKASTURTEA KANPAINA

Ospatu gurekin  
batera 5. urteurren

5 koaderno erosiz gero,  
notak jasotzeko  
bloka opari.



Iaz bete gabeko  
koadernoak laga  
bazenituen eta espiral  
bakarrekoak badira, ez  
itzazu bota! Zatoz eta  
zeure gustora errezikla  
ditugu.

Diseinatu itzazu zeuk z  
koaderno, karpeta, agen  
paperontziak... Marcón  
lagundu egingo dizugu!





## BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA  
20570 Bergara  
☎ 76 03 97 • Faxes: 76 08 19

## Argitaratzailea:

ARDUN Elkarte.

## Zuzendaria:

Eneko Azkarate

## Erredakzioa:

Eduardo Mendibil  
Mikel Elkoroberezar

## Maketazioa:

Maki Iturbe

## Publizitatea:

Kristina Romero

## Harpidetzak:

Gorka Elortza

## Testuen zuzenketak:

Esteban Plazaola

Mariipi Laskurain

Alex Labaien

## Erredakzio kontseilua:

Gorka Elortza

Miguel Angel Elkoroberezar

Alex Labaien

## Komikiak:

Ritort Rodriguez

Gorka Ortega & Jon Alvarez

Alex Ugalde

Uhai Azkarate

## Azaleko argazkia:

Pol-Pol Argazki Taldea

## Banaketa:

Xantxangorri taldea

## Tirada:

4.800 ale.

## Inprimategia:

Bertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

## Copyright:

BERRIGARA

## Lege gordailua:

38/50/91

## ISSN:

1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain  
erabiltzen aldizkarian adierazitako  
irizien eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako  
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko  
Jauriaritzaren Kultura  
sailaren laguntza jaso du

## Z E B E R R I D A ?

## MILA ANDUEZA

## Orfeoiko presidentea

- Zehaztu dituzue  
Orfeoiaren urtemuga-  
ko ospakizunak?

- Ideia asko ditugu  
baina oraindik ez dugu  
ezer zehaztu. 1998ko irai-  
letik 1999ko irailera bitar-  
tean Orfeoiaren 75. urte-  
muga ospatzeko progra-  
ma zabala osatzeko as-  
moa dugu. Orfeoiko pre-  
sidente eta zuzendari  
izan direnekin izan gara,  
Udaleko ordezkariekin  
ere egon nahi dugu... Ea  
denon artean ekitaldiak  
finkatzen ditugun.

- Euskadiko Orkes-  
tarekin zerbait egingo  
zenutela entzun da...

- Bai, aukera hori da-  
go baina oraindik ere  
programa, fetxa eta tokia  
zehazteke daude.

- Zeintzuk izango  
dira hurrengo emanal-  
diak?



- Urtea amaitu bitarte-  
an bizpahiru kontzertu  
emango ditugu Euskadi-  
ko Orkestako Perkutsio  
taldearekin; *West side  
story* eta zarzuelako lan  
batzuk egingo ditugu.  
Gabonetako kontzertua  
ere prestatzen hasiko ga-  
ra laister. Bestalde, Orfe-  
oiko kide izateko intere-  
sa dutenak astearte eta  
osteguneko 9etako ent-  
saiuetara etor daitezke.

**“Euskadiko Orkestako Perkutsio  
taldearekin abestuko dugu aurten”**

## I T U R R I O N E T I K

**Udazken Kulturalaren aurtengo  
edizioa urriaren 4an hasiko da**

Udazken Kulturalaren aurtengo edizioa urriaren 4tik  
Gabonak bitartean ospatuko da. Udaleko Kultur  
Zerbitzuak ia programazioa osoa zehaztuta duen  
arren, oraindik ere hainbat ekitaldi konfirmatzeke  
daude. Udazken Kulturalari urriaren 4ean emango zaio  
hasiera, Ados antzerki taldearen “Lamiak” lanarekin.  
Besteak beste, urriaren 17an Kubako “Entre voces”  
kamara abesbatza izango da Bergaran, azaroaren  
15ean Esteban Landart organujolea, azaroaren 28an  
Txirene antzerki taldea “Torito bravo” lanarekin eta  
abenduaren 13an Esteban Elizondo organujolea.  
Gabonetako kontzertua abenduaren 20an izango da.

E S A N  
D U T E

“Orain etorkizunean  
zabalduko den  
museoan jarriko den  
erakusketako  
bilduma prestatu  
behar da. Dauzkagun  
piezetatik batzuk  
garrantzitsuak dira  
eta beste batzuk,  
ordea, nahikoa  
arruntak; horiek  
aurkeztea ez da  
garrantzitsua. Batzuk  
berritu behar ditugu,  
baina beste batzuen  
kasua ezinezkoa  
izango da”

**XABIER  
ARANBURU**

Udal museologoa  
ELHUYAR

“Lehen, batxilergoan,  
ez zegoen  
sistematizatuta  
gizarte zientzien  
alorrean zein zen  
Euskal Herriaren  
tratamendua. Orain  
modu sistematiko,  
koherente eta  
zientifikoan jaso  
dugu hori. Honek  
sortu zuen istiluren  
bat, eta prentsa  
politikoki interesatu  
batek esan zuen ez  
dela Espainiako eta  
munduko geografia  
eta historia irakasten,  
bakarrik Euskal  
Herrikoa”

**ENEKO OREGI**

Hezkuntza  
sailburuordea  
EUSKALDUNON  
EGUNKARIA



**MENTIROSO COMPULSIVO**

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 17:00.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30

(Ikuslearen eguna).

**TWIN TOWN**

Martitzena: 17:00, 19:30, 22:15.

**Zinea**

▼▼ Bere filmeen arrakasta ikusirik, Hollywoodeko aktorerik famatuenetakoa bilakatu da **Jim Carrey** (*La mascara, Aceventura*). Oraingo komedia honetan ere bere jarraitzaileek Carreyren ohizko keinuekin gozatuko dute. *Fletcher Reede* abokatuaren paperean, bere lanean gezurretan ibiltzera ohitu ondoren, horrek eguneroko bizitzan eta bere familiarekin ekarriko dizkion ondorioak azaltzen zaizkigu.

▼▼ **Kevin Allen** zuzendariaren filme honetan, **Llyr Evans, Rhys Ifans, Dougray Scott** edota **Dorien Thomas** aktoreak ditugu erreparto buruan. Ia eskualde osoko jabea den *Bryn Cartwright* aberatsak ez du nahi izango lan istripua izan duen bere langile bati kalteak ordaindu eta langilearen lagunek mendekua hartuko dute...

**Deiak**

▼ **Bingen De Pedroren** margotzailearen erakusketa Nahikari tabernan.

▼ **Amnistiaren Aldeko Batzarordeak** deituta, "Presoak Euskal Herrira" lemapean, manifestazioa izango da astelehenean, San Martin bezperan, 20:00etan.

▼ **1933an** jaiotako bazkaria irailaren 20an Antxonin. Aurretik 13:00ean, meza Santa Marinaran. Izen-ematea Antxonin eta Intxortan.

▼ **1961ean** jaiotako bergararren bazkaria urriaren 4an. Izen-ematea Nahikarin eta Dixulan (1.000 pezetako depositoa).

▼ **Antzuolako** herriko pilotari txapelketarako izena emateko epaia irailaren 22an bukatzen da.

**Ogia**

▼ **Domeka 14:** Konde.

▼ **Martitzena 16:** Mizpildi.

▼▼ **Herri Krosa** jokatu da bihar, larunbata, 17:15etatik aurrera. Hiru kategoria bereiztuko dira: 14 urtera arteko gaztetxoek 1.700 m.ko ibilbidea bete beharko dute; 15 urtetik 17 urtera bitartekoek 4.560 m. korritu beharko dituzte eta, azkenik, 18 urtetik gorakoek 9.120 m.ko ibilbidea. Izen-ematea lasterketa hasi baino orduerdi lehenago Plazan.

**FARMAZIAK**

▼ **Eguakitza 12:** Camacho.

▼ **Zapatua 13:** Mozos.

▼ **Domeka 14:** Mozos.

▼ **Astelehena 15:** Estella.

▼ **Martitzena 16:** Camacho.

▼ **Eguaztena 17:** Camacho.

▼ **Eguena 18:** Puy.

**LONBIDE  
OINETAKOAK**

Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 **BERGARA**

**ETXAGI  
JATETXEA**

AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO  
MENUA, GOSARIAK,  
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12



# Alaitz eta Mainer

**Zapatu gauean San Martin plazako dantzaldia alaituko dute**

Bere lehen diskoak izan duen arrakastaren ondoren, Alaitz eta Mainer trikitilariak uda osoa daramate plazarik plaza jotzen. Oraindik Bergara ezagutzen ez duten oartzuar gazte hauek zapatuko dantzaldia alaituko dute, gaueko 10:30etik aurrera. Plazan bildutako guztiak dantzan jartzeko asmoa dutela azaldu digu Mainerrek.



Txikitatik dira lagunak eta zazpi urte daramatzate elkarrekin jotzen.

**- Zela hasi zineten elkarrekin jotzen?**

- Alaitzek oso txikitatik jotzen du eta zerbait oparitu behar ziotenean gezurretako trikitia jasotzen zuen beti. Nik ere aitona trikitilaria dut, aitak kitarra jotzen zuen talde batean..., betidanik izan dut musikarako zaletasuna. Alaitzen amak elkartzeko proposamena egin zidan eta horrela hasi ginen, bera soinua jotzen eta ni panderoarekin. Zazpi urte daramagu elkarrekin.

**- Zuen lehendabiziko diskoak arrakasta handia izan du. Zenbat kopia saldu dituzue?**

- Ez daukagu ideiarik ere, ez baitugu galdetu. Egia esan, ez genuen halako arrakastarik espero eta

honek ustekabeen harrapatu gaitu. Udan ere nahiko lan egin dugu, 65 emanaldi eman ditugu jadanik. Oso polita da gertatzen ari zaigun hau guztia, baina nekagarria ere bai.

**- Behin baino gehiagotan Maixa eta Ixiarrekin konparatuko zintuzten...**

**“Arrakasta honek ustekabeen harrapatu gaitu; 65 emanaldi eskaini ditugu dagoeneko”**

- Askotan. Baina neurri batean normala da, ez gauza berdina egiten dugulako baizik eta trikiti mailan bi nesken ahotsa orain arte oso gutxi entzun delako. Orain ere Amaia eta Kristina hasi dira jotzen eta normala da jendearen aldetik horrelako konparaketak egitea.

**- Badirudi trikitia modan dagoela azkenaldian. Zergatik eman da boom hori?**

- Tapia eta Leturiak eta beste talde batzuk ere lan dexente egin dute orain ematen ari den boom horretara heldu arte. Boom horren arrazoiak ez dakit zeintzuk diren baina egia da trikitiari bajua eta beste instrumentu batzuk gehitzean jende gehiagorengana heldu dela gure musika.

**- Zelakoak dira zuen zuzeneko emanaldiak? Zein adinetako jendea joaten da?**

- Normalean hiru orduz jotzen dugu. Bi orduz jarraian, atsedendaldi bat eta beste ordubetez gero. Abesti herrikoiak jotzen ditugu, gure diskokoak, diskoan agertzen ez diren beste batzuk... Ikusleria? Denetik dago. Hasieran haur dexente egoten da gure kontzertuetan eta gero jende gaztea etortzen da, helduak ere ikusten dira... adin guztietakoak.

**- Zuei zein musika gustatzen zaizue?**

- Alaitzi blues eta rock taldeak; ni poperoagoa naiz: Ella baila sola, Pretenders, The Coors...; Musika zeltiarra...

**TOKI-ONA**  
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txixizotzak  
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi, 1 Tfnoak: 76 39 53



**Gaspar**

JATETXEA, TXOKOLATEGIA,  
SELF-SERVICE-A

Barrenkale, 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA



### Eskertza

Alfonso Larrañaga zenaren omenez joan zen domekan Elosun egin zen meza eta ondorengo luntxa antolatu zutenei eta bertan izan ziren guztiei, bereziki kuadrilakoei eta Alai taldeari, eskerrak eman nahi dizkiet adierazitako elkartasunagatik.

MILAGROS AGIRREZABAL, ALFONSO  
LARRAÑAGAREN ALARGUNA

### Arazo teknikoak

Konturatuko zineten moduan joan zen asteko alean orrialde batzuk ez ziren guk nahi bezala argitaratu. Azken orduan ordenadorean izandako huts baten eraginez alea ez argitaratzeko zorian izan ginen. Hala ere, gure bezero eta irakurleekin daukagun konpromezuagatik, ahal zen moduan kaleratze ahaleginak egin genituen. Behar den kalitatearekin izan ez arren, 289. alea normal banatu zen.

Ordenadoreek laguntza handia ematen digute; baita ustekabe eta buruhausteak ere noizean behin. Horrelakoetan esan ohi denez, gaizki eginak barkatu eta ondo egingakoak kontutan hartu.

BERRIGARA

### Kontuola

Aste honetatik aurrera, hamabostean behin, Antzuolako berri izango duzue Kontuolan, Antzuolako aldizkarian. Lau orriko gehigarria, Berrigararekin batera jasoko duzue bai antzuolarrok eta baita bergararrok ere.

Aurrerantzean, bestalde, astero-astero banatuko da Berrigara Antzuolako etxeetan, Antzuolako Udalak eta Idolaz euskara elkar-teak, eta honek eta Berrigarak egindako hitzarmenei esker. Hemendik aurrera, beraz, 4.800 Berrigara banatuko dira Antzuola eta Bergarako ia etxe guztietan.

BERRIGARA

## Tiira biraka

GORKA ORTEGA & JON ALVARE



DENA  
**100**etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta, 3

Usoa Pub



☎ 76 38 57  
Irala, 1

**MUJIKA**

Jantzidenda

Barrenkale, 1 Tfnoa: 76 29 91




# Atanoren irudia eta Udaletxeko harmarria Udal Pilotaleku berriztuan

**Aste honetan** bertan jarri dute Atano III.a pilotari haundia izan zenaren irudia Udal Pilotalekuko errebotean. Abuztuan zehar pilotalekuko errebotea atzeratzeko eta frontisa eta ezker paretak berrizteko lanetan jardun du Etxabide enpresa azkoitiarrak eta lanak amaitu ostean, datorren martitzean zabalduko da berriz ere frontoia, Asegarcek San Martin egunean pilota jaialdia antolatuko baitu.

Urionaguena eta Arroio II.ak, Olaizola eta Zearraren kontra jokatu dute lehenengo eta, ondoren, estelarrean, Unanue eta Galartza III.ak Capellan eta Zezeagaren kontra neurtuko dituzte indarrak.

Frontoiko obrak uztailean hasi ziren. Errebotea



Aste honetan kendu dituzte andamioak. Behean, Atanoren irudia.

2,24 metro atzeratu da eta lehengo errebotearen gainean zeuden aulkiak desagertu egin dira. Pilota biziak erabiltzen zirenean frontoia motzegi geratzen zela eta, Asegarcek errebotea kentzeko eskatu zion Udalari eta horregatik atzeratu dute. Orain 37,20 metro eta 10 kua dro izango ditu kantzak.

## Harea txorroa

Bergarako Udal Pilotalekuko paretak irregular samarrak direla eta pilotak efektu arraroak egiten dituela entzun izan diegu hainbat alditan bai pilotarietara eta baita zaletu eta kazetarietara ere. Bergarako frontoiko paretak kare harri blokez eginda dau-

de eta horien gainetik zarpeatu eta pintura kapu ugari eman dira. Aspaldian ganorazko konponentarik ez da egin, ezta orain dela pare bat urte ere, frontoian hainbat berrikuntza lan egin zirenean. Arazoa behingoz konpontzeko, azken bi hilabete hauetan frontiseko



eta ezkerreko paretak pikatu eta harriaren gainean 10 tona harea txorro bota dira, ondoren berriz ere berdez pintatzeko. Bestalde, joko eremuaren gaineko paretak eta txapapea urdinez pintatu dira eta lehen naranja kolorez zeuden marra guztiak, hau da, koadroen, faltaren eta motzaren marra, orain horiz margotu dira.

## Harmarria eta Atano III.aren irudia

Bestalde, errebotean Mariano Juaristi Atano III.a zenaren irudia (beheko argazkian) jarri da eta ezkerreko paretan, erdi inguruan, goian, Bergarako Udalaren harmarria. Lehen ere Simon Arrietak pintatutako Atano III.aren irudia bazegoen frontoiaren kontraktan, baina 1966. urtean frontoia berriztu eta honen gaineko etxeak egin zirenean kendu egin zuten. Pilotari haundia izan zenaren irudia berreskuratu nahi izan du Udalak eta Zabaleta erro tulo etxeak egin du berriz ere, Bixente Jauregik lagatako orduko argazki batean oinarrituta. Udal Pilotalekuko obra hauen kostua 10 milioi pezetatik gorakoa izan da.

### HILDAKOAK

Aste honetan eguenera arte ez da inor hil Bergaran.

### JAIOTAKOAK

Gorka Irazola Agirre

Irailak 2.

Xabat Irazola Agirre

Irailak 2.

Ainhoa Osa Arozena

Irailak 3.

Iban Martinez Rodriguez

Irailak 7.



# ETXE PARE-BILINTX

## LIBURU DENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA



### Mariaren Lagundiko klaseak

Mariaren Lagundia ikastetxean era honetan hasiko da ikasturte berria: Haur Hezkuntza (4-5 urte) eta DBHkoek irailaren 17an 10:00etan hasiko dituzte klaseak goizez bakarrik eta hilaren 22tik aurrera goiz eta arratsalde; bestalde, Lehen Hezkuntzakoek (lehen mailatik 6. mailara artekoek), irailaren 22an goizeko 09:00etan goiz eta arratsalde. Azkenik, bi eta hiru urteko haurren gurasoekin egingo den bilera batean erabakiko da noiz eta nola hasiko duten ikasturtea.

### Matrikula zabalik Udal Euskaltegia


Euskalduntze, alfabetatze eta EGArako matrikula egiteko epea hilaren 18ra arte zabalik dago Udal Euskaltegia. Bulegoko ordutegia honako hau da: 08:30-12:30 eta 14:30-19:00. Bekatze sistema eta dirulaguntzak dituzte.

### Haurren danborradako entsaioak

Domeka honetan goizeko 10:30etan San Martinen martirioko entsaioa egingo da San Martin plazan. Bestalde, japoniar herritarren papera egin nahi dutenentzat zabalik dago aukera. Baldintza bakarra da jantziak izatea: alkandora eta fraka motzak, lasak; edo karateko jantzia; edo kimonoa.

### Xipizaro ludoteka

Irailaren 17an irekiko da ludoteka eta matrikula egiteko epea. Ordutegia honako hau izango da: 3 urtetik 9ra artekoentzat, 19:45tatik 18:30etara eta 9 urtetik 13 urtera artekoentzat, 18:30etatik 19:30etara. Telefona: 76 23 76.



Lehenengo Zerrajerako orubeetan kokatuko da industrialdea. Estructura mantenduko da.

## 215 milioi pezeta industrialdearen lehen fasea urbanizatzeko

*Lanak urrian hasiko dira; adjudikazioa datorren astean*

Bergarako Industrialdea urbanizatzeko egingo diren obrak datoren astean adjudikatuko dira. Eskariak egiteko epea joan zen astean amaitu zen eta adjudikazioa ere joan zen astean egitekoa zen, baina aurkeztutako enpresetako bati paperen bat falta zitzaioela eta, plikak datorren astean zabaltzea erabaki du Udalak. Abuztuko oporren aurretik Udalbatzak onartu zuen moduan, industrialdea urbanizatzeko lehen faseak 215 milioi pezetako aurrekontua izango du. Urbanizatu den lehen fase honetako lurra- ren jabeak, Kutxa, Lucio Arregi eta Bergarako Industrialdea dira (Spri, Gipuzkoako Diputazioa eta Bergarako Udala).

Lanak, adjudikatu eta gero, urri inguruan hasiko dira eta zazpi hila-

beteren buruan amaituta egotea espero dute. Bergarako Industrialdearen lehenengo Zerrajerako orubeetan kokatuko da. Lantegiaren estructuren daudenetan laga eta kanpoaldetik berriztu egingo dira; bestalde, zarrua eta inguruak ere egokitu egingo dira eta barrualdean jarriko dira berriak. Industrialde osoaren urbanizazioak 1.000 milioi pezetako kostua izango du eta Eusko Jaurlaritzak Spri erakundearen bitartez (%51), eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bergarako Udalak (%24 bakoitzak) ordainduko dute.

Dagoeneko Bergarako eta inguruko beste enpresa batzuen eskarira ugari jaso dira Industrialdean kokatzeko. Badira 300 metro karratu eskatu dituztenak eta baita 1.000 metro karratu behar dituztenak ere.

**AGIRREBEÑA**  
oinetakoak  
arropa denda  
lenzeria  
Urteaga, 5 ☎ 76 18 29

**INFERNUKUA**  
**TABERNA**

Masterreka, 23 ☎ 76 18 49



## Barruko piszinak astebukaera honetan zabalduko dira

Gaur, eguakitza, zabalduko dira barruko piszinak. Neguko denboraldian goizeko 08:00etan zabaldu eta 21:00etan itxiko dira barruko igerilekuak; zapatu, domeka eta jai egunetan, berriz, iluntzeko 19:00etan itxiko dira. Barruko piszinak zabaltearekin batera kanpokoak itxi egingo dira. Hala ere, eguraldi ona egiten baldin badu eta norbaitek eguzkia hartu nahi badu, aukera izango du kanpoaldeko berdegunean, San Martin egunean izan ezik, kanpoaldea itxita egongo baita.

Aurtengo udan abuztua eta ekaina hil normalak izan dira eta jende dexente ibili da igerilekuetan, baina uztailen ez du eguraldi onik egin eta beste urte batzuetan baino jende gutxiago ibili da. Iosune Linazisorok,

Udal Kirol Zerbitzuko arduradunak eman dizkigun datuen arabera, aurtengo abuztuan karnetarekin 14.174 sarrera izan dira (iaz 6.457 izan ziren) eta beste 3.316 lagunek ordaindu egin dute sarrera; ekainean, 6.605 sarrera zenbatu ziren karnetarekin eta uztailen 11.105. Guztira, beraz, 17.490 sarrera izan dira abuztuan piszinetan eta uda guztian 35.198 (iaz 36.091).



## Eulen enpresari adjudikatu zaio gaisoak egunean zehar jubilatuetan zaintzeko zerbitzua

Donostiako Eulen enpresa arduratuko da jubilatuen egoitzan jarri den gaisoak egunez zaintzeko zerbitzua. Udal Gobernu Batzordeak joan zen eguakitzean adjudikatu zuen zerbitzua, jasotako hiru eskariak aztertu ondoren. Eguneko zerbitzua urri hasieran jarriko da martxan eta Eulen enpresako bi lagunek egingo dute lan. Orain arte bost eskaera jaso dira eta astelehenetik eguakitzera 10:00etatik 18:30ak bitartean zainduko dituzte; zapatu eta jai egunetan ez da zerbitzurik eskainiko. Eguneko zentrua gaisotasun degeneratiboak dituzten pertsonak egunean zehar zaindu eta hauen familiartekoek bizitza normala egin dezaten laguntzeko zerbitzua da. Jubilatuen egoitzan kokatuko da azken hilabete hauetan egin dituzten egokipen lanak amaitu ostean. Obrak amaitzeaz daude eta zerbitzua, esan bezala, urri hasieran jarriko da martxan.

## “San Martinen Estanpa”ko bideoa salgai

Otsailean antzestu zen San Martinen Estanpa ikuskizunean hartutako irudiekin egindako bideoa salgai izango da datorren astetik aurrera Musika Eskolan. Bideoak 2.000 pezeta balio du eta hasiera batean lehendik eskaria eginda zutenek erosi ahal izango dute bakarrik. Bideoa hartzeko ordutegia honako hau izango da: hilaren 17tik 25era arte, 17:00etatik 21:00ak bitartean.

## Udal Zergen ordainketa

1997ko Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren eta Ekonomi Ihardueren Gaineko Zergaren erreziboak ordaintzeko epea zabalik dago. Ordainketak egiteko epea azaroaren 10era arte izango da zabalik. Erreziboen ordainketa banketxeren batean helbideratuta duten herritarrei, banketxearen bitartez bidali eta kobratuko zaie.

Erreziboa helbideratuta ez dutenek, berriz, egun hauetan beren etxeetan jasoko dute ordainketa egiteko beharko duten agiria. Agiri horrekin edozein banketxe edo udal bulegotatik pasatu daiteke ordainketa egiteko.

## Fandango eta arin-arin ikastaroa Moises Azpiazu Taldearekin

Moises Azpiazu dantza taldeak 4 urtetik 9 urtera artekoentzat antolatzen duen dantza ikastaroa urriaren 6an hasiko da. Urtean zehar astelehenetik eguakitzera bitartean eskolatik irten ostean emango dira klaseak. Izena eman nahi duenak 76 15 40 telefonora deitu dezake.

## IBARGUREN PENTSUAK

BIONA pentsuen biltegia,  
BIOTER produktuak,  
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79

## Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA



## EGUAKITZA 12

**19:30:** "Linua, ehuna eta artilea" liburuaren aurkezpena. "Bergara aldeko berbak eta langintza zaharrak" bildumako lehen liburua. Udaletxeko Pleno Aretoan. Aurkezpen ekitaldian hauek izango dira: Jaione Isazelaia, liburuaren egilea; Juan Martin Elexpuru, bildumaren zuzendaria; Miren Azkarate, euskaltzaina eta aholkulari taldekoa; eta Victoriano Gallastegi alkatea. Aurkezpenaren ostean harigintza eta haria lantzeko tresna zaharrei buruzko erakusketa zabalduko da Udaletxean bertan.

**22:30:** Bikoteen Dantza Askatuko XIII. Txapelketa, Moises Azpiazuren omenez, Udal Pilotalekuan.

Txapelketa, Gorlako kantina inguruan.

**12:30:** Bergarako odolkien dastaketa, Bedelkarrek antolatuta: Jose Jabier Igarza, Sebastian Imaz, Jabier Lazpiur "Altzeta", Jose Luis Leturia, Jon Leturia, Luis Mari Retolaza, Pello Urzelai eta Jose Manuel Zurutuza harakinek emango dute prestatuko den odolkia. Bi txozna jarriko dira, bat San Martin plazan eta bestea Seminarioko patioan eta hemen saldatukoarekin eta herri afariarekin batzen den dirua, egunean zehar lanean arituko diren kultur taldeei banatuko zaie.

**17:15:** VIII. San Martin Herri Krosa, herriko kaleetan zehar, San Martin plazatik irtena.



**Bergara eta inguruko baseritarrek euren produktuak erakutsiko dituzte barazki, lora, fruta eta gazten lehiaketan. Lehiaketara aurkezten direnak (40 izango dira aurten) San Martin plazan kokatuko dira eta lehiaketatik kanpoko beste 25 postu Seminarioan. Baseritarrek aurten ez ei dute uzta haundirik jaso eta horregatik beste batzuetan baino postu gutxiago izango dira.**

## ZAPATUA 13

**10:30:** Barazki, fruta, lora eta gazten lehiaketa, San Martin plazan.

**10:00:** V. Bergara Hiria Nazioarteko Xake Txapelketa Irekia, Udal Pilotalekuan. Lau txanda izango dira gauera arte.

**12:00:** Aintzinako abankargazko armekin plater tiraketa, VII. San Martin

**19:00:** Buruhaundi, kiliki eta erraldoien kalejira, Udal Txistulari Bandak, Kobok dultzaineroek eta Kukumako hankapaluek lagunduta.

**20:00:** Bonba japoniarrak haurrentzat, San Martin plazan.

**20:30:** Herri afaria: egunean zehar burduntzian erretako txekor jana. Xafre eta Zaharra trikitilariak musikaz lagunduko dute egunean



zehar eta afarian. Afarirako txartelak harategietan eskuratu daitezke.

**22:00:** Alaitz eta Mainerrek girotutako erromeria San Martin plazan.

**22:30:** Bertso jaialdia, Jardunek antolatuta, Novedades aretoan. Ainhoa Agirreazaldegia, Euzkitze, Mañukorta, Angel Mari Peñagarikano eta Jon Sarasua arituko dira bertsotan. Gai jartzaile: Joserra Gartzia. Bestalde, Landa aita-semeak trikitilarien eta Oihulari Klown antzerki taldearen Bertso-Klown saioak ere izango dira.

**San Martinetako ohiko bertso jaialdian, aurten Landa aita-semeak trikitilariak eta Oihulari Klown antzerki taldearen bertso-klownak ere izango dira. Sarrerak: 800 pezeta aurrez erosiz gero, eta 1.000 pezeta takilan.**



## DOMEKA 14

**09:00:** Ageriko pintura lehiaketa Kultur Etxean, Beart elkarteak antolatuta. Egindako koadroak Kultur Etxeko erakusketa aretoan jarriko dira ikusgai.

**10:00:** V. Bergara Hiria Nazioarteko Xake Txapelketa Irekia Udal Pilotalekuan. Hiru txanda izango dira 18:30ak arte eta ondoren sari banaketa egingo da.



## ASTELEHENA 15

**17:00:** "Piratak" kale antzerkia San Martin plazan. "Hankagorri" taldeak emana.

**19:00:** Xake azkerreko maratonia Bergarako Xake taldearen egoitzan zaletu guztientzat irekia.

**22:30:** Nagusien danborradaren irteera, Udal Musika Bandak lagunduta. Ibilbidea: Seminarioko



patioa, Irizar, Barrenkalea, Bidekurutzeta, San Pedro, Artekalea, Arruriaga, Barrenkalea eta San Martin plazan.

**12:30:** Manhattan orkestrak animatutako dantzaldia San Martin plazan.

**MARTITZENA 16**

**08:00:** Diana, Udal Txistulari Bandarekin.

**08:30:** Sokamuturra.

**11:00:** Meza nagusia, San Pedro elizan. Udalbatza joango da, Udal Musika Banda eta Txistulari Bandak lagunduta.

**11:30:** Xakeko aldibereko jokaldiak, San Martin plazan.

**12:00:** Udal Musika Bandaren kalejira.

**12:30:** Udal Musika Bandaren kontzertua, San Martin plazan.

*Egitaraua:*

"Gorla". Martxa.

Alfredo Gonzalez Chirlaque "Athalia". Obertura.

F. Mendelshon

"Lau dantza". Poco alegre, larghetto, largo, allegro giocoso. J. Hademann.

"Paradisuairen konkista".

Gai nagusia. Vangelis.

"San Martin".

Euskal estanpak.

Miguel Gonzalez Bastida.

**17:00:** Profesionalen pilota partiduak Udal Pilotalekuan. Urionaguena eta Arroio II.ak Olaizola eta Zezaren kontra

jokatuko dute lehenengo partiduan eta estelarrean Unanue eta Galartza III.ak Capellan eta Zezeagaren plaza.

**18:30:** Haurren danborrada eta San Martinen martirioaren errepresentazioa, Musika Eskolako Bandak lagunduta. Ibilbidea: Seminarioko patioa, Irizar, Barrenkalea, Bidekurutzeta, San Pedro, Artekalea, Arruriaga, Barrenkalea eta San Martin

**Aurtengo haurren danborrada berezia izango da, bestetan baino ederragoa eta ikusgarriagoa. Joan zen otsailean Udal Pilotalekuan antzeztu zen "San Martinen Estanpa" ikuskizunetik hainbat pasarte hartu dira eta bertan parte hartu zutenak arituko dira. Danborrada japoniarra, geishen dantza saioa, martirioa e.a. antzeztuko dira danborrada amaieran.**

plaza. Bukaeran, otsailean "San Martinen Estanpa"n antzeztu zen danborrada japoniarraren eszena batzuk antzeztuko dira, martirioaren 400. urteurrena dela eta. Besteak beste, soldadua, danborjole japoniarrak, enperadorearen eta geishen karrozak eta martirioko fraileen desfilea izango dira. Estanpan erabili ziren jantziak erabiliko dituzte eta bertan parte hartu zutenak arituko dira. Halere, herritarren partehartzea

eskatu dute, kalera japoniar jantzita irtetzeko, Bergarak orduko Nagasakiren itxura hartu dezan.

**22:00:** Suzko erroberak San Martin ikastetxeko patioan.

**23:00:** Dantzaldia Luhartz taldearekin San Martin plazan.

**EGUASTENA 17**

**18:00:** Bergarako eskolarteko xake txapelketa



irekia, Bergarako Xake taldearen egoitzan, zaletu guztientzat irekia.

**EGUENA 18**

**18:00:** Xake azkarreko txapelketa, Bergarako Xake taldearen egoitzan.

**EGUAKITZA 19**

**19:00:** Bergara eta Arrasate arteko itzuliko Xake lehia, Bergarako Xake taldearen egoitzan.

**ZAPATUA 20**

**10:00:** II. Bergara Hiria Nazioarteko Xake Promozio-Txapelketa Irekia, Kultur Etxean. Arratsalde ere jokatuko da.

**12:00:** Irrati-kontaktuen lehiaketa, 24 orduz, domekako eguerdiko 12ak arte, Surra Irratizaleen Elkarrekin antolatuta.

**15:30:** XXXII. San Martin txirindulari lasterketa.

**DOMEKA 21**

**10:00:** II. Bergara Hiria Nazioarteko Xake Promozio-Txapelketa Irekia, Kultur Etxean. Arratsaldean berriz.



**GAZTEENTZAKO  
OINARRIZKO  
SUKALDARITZA  
IKASTAROA**

**noiz:** iralaren 22tik 25era  
**ordutegia:** arratsaldeko 6.30etatik 8.30etara  
**irakaslea:** Iñigo Larrañaga  
**matrikula epea:** irailaren 19a  
**prezioa:** bazkideak, 1.500 PTA; ez direnak, 2.000 PTA





# Langintzak jasoz

## Lexiko berezien lehen liburua



Argazkian Aezkoako emakumeak hariginan, Jaione Isazelaiaren liburuan agertzen den irudietako bat.


**Udalak eta UNEDeko Euskal Kultur Departamentuak herriko euskararen lexiko bereziak berreskuratzeko sinatutako hitzarmenaren barruan, Jaione Isazelaiak landu duen "Linua, ehuna eta artilea" liburua aurkezpena egingo da gaur 19:30etan Udalletxean. Pleno aretoan, harigintzari buruzko erakusketa zabalduko da.**

**U**NEDeko Euskal Kultur Departamentuak eta Udalak, Bergara aldeko berbak eta langintza zaharren lexiko bereziak jasotzeko ahaleginetan, galtzear dauden langintza zaharretatik ekin zioten proiektuari. 1993an martxan jarritako hitzarmenaren lehen emaitzak argia ikusiko du gaur. Jaione Isazelaia Aranzadi Ikasto-

lako irakasle arrasatearrak linua, ehuna eta artileari buruzko liburua landu du.

Estepan Plazaola Udaleko koordinatzailearen esanetan, "lexikoen biltze aldetik garrantzi handia dauka proiektu honen. Euskal Herrian lan solte batzuk egin dira baina ez dugu ezagutzen honen moduko beste proiekturik".

Esan bezala, galtzear dauden langintza zaharretatik hasia erabakia zen eta gaur aurkeztutako lanaz gain, Amara Olañetak eta Argiñe Urtziokiolak "Txondorrak, karrobiak eta elurzuloak" izenburuko egingo duten Anaje Narbaiza arotzari eta etxegileak aztertzen ari da eta, azkenik, Lidia Oregik eta Iñaki Aranzadi errementari eta perratzari



# ARATZ

## ALBAITARI KLINIKA

**Aratzek, San Martin jai zoriontsuak opa dizkie bere bezero guztiei!**

Zurradero 6, behea  
Telefona: 76 70 67 Mobila: 907 48 71 19



leei buruzkoa landuko dute. Beka txiki batzuk egon diren arren, ia borondatezko lantzat eman daiteke egileek egin dutena. Kasu gehienetan, lehen ere Bergarako euskarari buruzko liburuan parte hartu zuen jendea izan da. Estepanek adierazten digunez, "txondorrak, karobiak eta elurzuloei buruzkoa ia gertu dago. Maketatzea eta inprentara eramatea besterik ez da falta. Ziurrenik urte hasierarako kalean izango da; beste biak, berriz, datorren urtean zehar aurkeztuko dira. Lau liburuek formato bera

eta luzera antzekoa izango dute eta langintza bakoitzari buruzko teknikak, historia edota lexikoa jasoko dute".

### Liburu didaktikoak

Plazaolaren ustez, "lan hauek euskararekin lotutako edozeinentzat interesgarriak izan daitezke, baina beharbada oraindik erakargarriagoak dira mundu hori ezagutu edo langintza horietan interes berezia dutenentzat. Dena den, oso modu didaktikoan egingako liburuak dira, argazki asko eta testu ari-

nak dituzte eta gai haue-tan interesa pizteko liburu oso egokiak direla esango nuke".

Juan Martin Elexpuru izan da bilduma honen zuzendaria. Elexpuruk azpimarratzen duenez, "azkenengo mende honetan benetako iraultza gertatu da mendebaldeko bizimoduan eta baita bizimoduaren ispilu izan obi den bizkuntzan ere. Ehundaka edo milaka urtean aldaketa handirik gabe iraun duten langintzak birmoldatu edo galdu egin dira. Bilduma honetan jasotako langintzak galduenak zire-

lako aukeratu genituen; egur lanak ere oraindik bor jarraitzen du (etxegile tradizionalak beste modu batean lan egiten dute gaur egun) baina besteak galdutzat eman daitezke. Alde horretatik, hurrengo belaunaldiek aurrekoen berri izan dezaten, oso lan interesgarria da honako hau".

### Filologia eta etnografia

Bilduma honen helburu nagusienetariko bat galtzeko zorian zegoen ondare hori jasotzea izan da. Juan Martinen hitze-

## JAIONE ISAZELAIA

"Linua, ehuna eta artilea" liburuaren egilea



**A**rrasatekoa jaiotzez, Angiozarko Aldai-egia auzoan bizi den Jaione Isazelaia andereñoak Bergara aldeko linua, ehuna eta artileari buruzko historia, teknikak

edo lexikoa aztertu ditu azken lau urteotan. Aurretik, "Bergarako euskera" liburuan "Botanika" eta "Osintxuko hizkera (Iñaki Etxanizekin batera) atalak landu zituen.

- Irakurleek zer

aurkituko dute liburuan?

- Liburuaren hasieran historia apur bat kontatzen da. Zatiarik potoloena, berriz, teknikari buruzkoa da; linua eta artilearen teknikak azaltzen dira.

Beste atal bat lekukoei egindako elkarrizketen transkribaketa da eta jarraian hiztegia eta eranskinak datoz. Eranskinen barruan bi atal daude: lehenengoan Udaletxeko artxiboetan aztertutako agiriak eta hortik jasotako datuak (Bergarako ehule eta harigileen zerrenda 1857tik 1930era arte) azaltzen dira eta, bestalde, Iñaki Zumalabek jasotako "Las ordenanzas de los pañeros bergareses del siglo XV" izenburuko agiria jasotzen da.

- Liburuaren historia, teknikak edota hiztegia landu dituzu. Zein izan da aztertzeke nekezena?

- Dena, oso lan zaila izan da. Batetik



# GAZTELU

## BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 Tfnoak: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

# Kizkur

## ILEAPAINDEGIA SOLARIUMA

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32



tan, "gure aurretikoek mendetan zehar pilatu-tako jakinduria batu eta zabaldu nahi dugu, bizi-modu modernoak dena lautu eta berdindu baino leben". Bere ustez, egin-dako lana filologia eta etnografiaren artean kokatu beharreko lana da; "langintzaren lexikoa jasotzea zen hasierako abiapuntua, baina langintzaren teknikak eta enparauak ahalik eta ondoen deskribatzen saiatu gara. Lexikoari dagokionez, Miren Azkarate eskaltzainaren arabera, jasotako zenbait hitz birziklagarriak dira, zen-

tzua aldatuz, gaur egungo bizkuntza teknikora-ko erabilgarriak dira. Orain arte hitz asko biztegietan ere izkutuan egon dira, kontestuz kanpo, argazki barik...". Etorkizunean bildumarekin jarraitzeko aukera ikusten du Juan Martinek; "jendeak lanerako gogo- balauka eta argitaratze-ko aukera balego, botanika, fauna edo beste ar- loren batekin antzerako

lanak egin daitezke".

Gaur aurkeztuko den liburua 1.500 pezetan eskuratu ahal izango da Gabonak arte Bergaran eta Gabonetatik aurrera, Bergaran zein inguruko herrietan, 2.200 pezetan salduko da. Bildumaren aurrekontua zazpi milioi pezeta ingurukoa izan da.

Bestalde, Oiartzungo Goruzaleak taldeak harigintzari buruz prestatutako erakusketa izango da

zabalik gaurtik urriaren 1era bitartean Udaletxe-ko Pleno aretoan; astelehene- tik ostiralera 18:00etatik 20:30etara eta larun- bakoitzeko 12etatik 14:00etara izango da za- balik. Era berean, larun- bakoitzeko 7etan, Larratze-ko Madinabeitiaren eskutik bisita gidatua egiteko aukera izango da. Bergara-ko ikasleentzat ere bisita gidatuak antolatuko dira.

lekukorik ez dagoelako. Bergaran adibidez, ez dut ehule tradizionalik aurkitu. Aurkitu nuen bakarria Eskoriatzakoa zen. Pentsatzen dut bailara honetako azkena izango dela. Gerra osterarte lan egin zuen; egoerak behartuta bere aita zenaren ofizioari heldu zion eta haren lekukotasuna jasota dago. Mende honen hasieran linua ereiteari laga egin zioten eta ordutik ehuleak desagertu arte urte gutxi batzuk pasatu ziren. Eduki ditudan lekukoetatik gutxi batzuk besterik ez zeukaten ezagutza zuzena. Askok bigarren eskukoa zeukaten, gurasoei entzundakoa adibidez. Azaleko azalpenak ematen zituzten, baina

zehaztasunetan sartuz gero, galdu egiten ziren. Informazioa bigarren eskukoa zen, baina orokorrean oso lekuko onak izan ditut. Informazioa zatika biltzen joan gara puzzle moduko bat osatu arte. Bestalde, argazkiak jiratzea oso zaila egin zaigu. Museoetan, artxiboetan, Kutxako fototekan... gauza gutxi aurkitu dugu. Dauden batzuk San Telmo museokoak dira eta gehienak Jerardo Elortzak eta bere taldekoak 74an egindako filmazio batetik ateratako irudiak dira. Gai honen inguruan dokumentazio gutxi dago eta niretzat oso lagungarria izan da Julian Alustizak egin zuen lana.

- **Lexiko aldetik berreskuraketa lan**

**haundia izan da?**

- Horri buruz ezin dizuet balorazio bat egin horretan aditua ez naizelako. Miren Azkaratek atarikoan idazten duenez, zenbait hitz jasota zeuden, baina jasotzeke zeuden beste pila bat hemen agertzen dira. Arlokako hiztegi honetan gaia gehiago konkretatzen denez, hitzen esanahia hobeto ulertzen da kontestu horren barruan.

- **Nori zuzenduta dago liburua?**

- Aurretik ez genuen pentsatu zeini zuzendutako lana zen. Lexiko berezia biltzeko premia sentitzen genuen eta premia horri erantzuteko egindako lana izan da. Nahiko gai berezia da, baina era errezean eta didaktikoan aurkezten saiatu gara. Argazki pilo bat duenez, beste barik, santuak (argazkiak) ikusirik jendeak gai honen inguruko ideia bat hartu dezake.

**"Eduki ditudan lekukoetatik gutxi batzuk zeukaten ezagutza zuzena, galdu egiten ziren zehaztasunetan sartuz gero"**

**ARDATZA**

**Brikolaketa**

Masterreka, 4 behea ☎ 76 18 93

- Ateak eta zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioak
- Era guztietako moldurak
  - Apalak
  - Kajoiak

**PANA DE ROKUA**  
**IBATEIXEAL**

Kontxi Idigoras

Asteburuetan bertako babak eta sabisak

SALBADOR, 10 ELGETA TLF. 76 82 73



# kontuola...

## Umeeek berriro ere gelak bete dituzte

Astlehenean, hilak 8, eman zioten hasiera ikasturte berriari

Astlehenean hasi zituzten klaseak herriko eskolakoek. 153 neska-mutil izango dira 97-98 ikasturtean. 17 ume matrikulatu dira aurten eta guztira hamar gela izango dira.

**B**i urteko 17 ume hasiko dira ikasturte honetan herriko eskolan. Orain dela urte batzuk kopuru hau txikiagoa zen; zenbait urtetan, 11 edo 12 haur baino ez ziren izan. Azken urteotan, 15-17koa izan da sartu direnen kopurua, herrian jaio edo bizi diren adin horretako ume guztiak matrikulatzen baitira herrian. Honek nolabaiteko ziurtasuna ematen dio eskolari, Antzuolako eskola jaiotze-tasaren arabera osatzen baita.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) ezarri zenetik (96-97 ikasturtean), hamabi urtetik aurrerakoek Bergarara joan behar izaten dute ikasketak jarraitzea. Aurten, 21 umek hasiko dute kurso berria Bergaran. Iaz, eta batez ere gurasoen aldetik, kezka ugari egon zen alda-ketak suposatzen zuenagatik (herria, ikasteko modua, irakasle eta ikaskideak aldatzea...). Pilar Etxaniz herri eskolako irakasleak dioenez, "ikasleek egoera berrira egokitzeko gaitasun handia erakutsi dute, eta ondo erantzun dute; aurten lasaiago doazela esan daiteke, batetik, ez daudelako egoera ezezagun batean eta, bestetik,



Aurten Bergarara joango diren neska-mutikoak.

Bergarako metodologiara gerturatzeko egokitze prozesu bat izan dutelako ikasturtearen azken hiru hilabeteetan".

Hala ere, Antzuolako eskolan 12-14 urte arteko umerik ez egoteak izan du bere eragina; hutsune fisikoaz gain, zenbait ekintzatan eskeintzen zuten laguntzaren falta antzematen delako (Santo Tomaseko feriarentzako antolaketa, karnabalen prestaketa...). Gainera, 14 urtera arteko ikasleak izatean, irakasle eta ikasleen arteko harremanak aberatsagoak direla uste dute irakasleek.

### 80ko hamarkadan hasitako erreforma

Pilar Etxanizen arabera, Hezkuntza Erreformak, orokorrean, ez die ezusteko haundirik eman. "Eskolan, urrats sendoak emanak genituen gero erreformak markatu duen ildotik. Hezkuntza kontutan, inor ez da sekula helmugara ailegatzen, beti dago zeregin berriren bat; horregatik irakasle taldeak formakuntza proiektutan jarraitzen dugu, baina esan daiteke Antzuolako eskolak oinarri sendoak dituela etorkizunari aurre egiteko".



Zurrategi, 4 behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 78 71 80

Sukalderako eta  
bainurako altzariak  
Altzari rustikoetan  
espezializatua



**Mendirajan eta dantzan egitera**

Joan zen domekan ospatu zen aurtengo Finalista Eguna. Arrolak deituta, bazkaltzera zein dantzatzera jende dexente elkartu zen Gaztelugainen. Hala ere, iaz baino jende gutxiago izan zen Trekutzeko zelaian, eguraldiak ez zuen asko lagundu eta. Gaztetxoek zein zaharrenek "aulki jokuan", "pañuelo jokuan" eta sokatiran jardun zuten bazkalostean; eta ondoren, Aitziber eta Ibon Gezalaga anai-arrebek eskainitako dantzaldia aprobetxatuz, sagar dantzan ere aritu ziren bertaratutakoak. Argazkian ageri denez, umorea izan zen nagusi domekan Trekutzen eta, urtero bezela, bertan izandako batzuk kantuan egitera igo ziren Aitziber eta Ibon trikitalariek.



**Kontuolaren lehenengo alea**

Gaur lehen aldiz kaleratzen den Kontuola aldizkaria herriko etxe gehienetan banatuko da. Horretarako, eta banatzailearen lana errezteko asmoarekin, KONTUOLAREN pegatinak ipiniko dira etxeetako buzoietan. Hamabostero banatuko den Kontuola edo asteroko Berrigara jasotzeko arazorik izanez gero, Kontuolak herriko eskoletan daukan bulegora jo dezakezue, edo 76 65 08 zenbakira deitu dezakezue. Kontatzeko zeozer duenak edo besterik gabe, Kontuola gertutik ezagutu nahi duenak eskoletako lehenengo pisuan dagoen bulegora etorri besterik ez dauka.

*Irailak 20-21 Irailak 28*

**Mendi ibilaldia Pirinioetan**

Arrolak Pirinioetarako irteera antolatu du datorren astebururako. "Picos de los Infernos"era joatekotan dira eta mendate horretako hiru tontorrak igotzeko asmoa dute. Zapatuan irtengo dira eta domekara arte ibiliko dira Pirinio aldean. Egutegiaren aurreikusitako gabeko irteera honetan parte hartu nahi duenak Arrolaren lokalean izango du izena emateko aukera datorren astelehenean, hilaren 15ean, arratsaldeko zazpi eta erdietatik aurrera.



**Ibardin-Larrun**

Ikasturte berriarekin batera, Arrolakoek ere gaztetxoentzako irteerekin hasi dira. Berako Ibardinetik Larrunera eta mango dituzte eskolako haurrak eta bertara joan nahi duten guztiak. Gaztetxoek eskolan bertan eman dezaketen irteerak, Arrolakoek bertatik pasatzeko asmoa baitute. Edozein modutan, hilaren 22an ere izango da irteera honetarako izena emateko aukera; beti bezela Arrolak bulegoan, arratsaldeko zazpi eta erdietatik aurrera.

*Uztailean Pimené mendian izan ziren.*

**GURE ARTIAN... Antzuolako berab...**



**Maripi Laskurain**

**I**DOLAZ euskara elkartek egindako lanak jaso du bere fruitua; hemen dugu, azkenean, KONTUOLA. Antzuolako berriak zabaltzeko gertu; herriko gertakizunak, kontu xelebreak, antzinako kontuak jorratzeko gertu.

Irakurleak informatzea eta tarte atsegin bat pasatzen laguntzea da gure erronka. Gure herriko bizitzaren ispilu den

aldizkaritxo egin nahiko genuen larron gorabeherak, pozak, negar sak eta bestelakoak kontatuz; herriko kari hau gure artian osatuko dugun irretarako aukera ematen baitigu. Eta nola ez, euskaraz jarduteko antzuolar gehienok berba egin eta tzen dugun euskararen ahalik eta gehienak, oraingoz, berritzi, samur eta gustora irakurtzeko karitxo egin dadin; eta bide berritzi karitxo egin dadin; eta bide berritzi de batera lagatzen joan gaitzen.



**Gabilondo-Arregi**  
harategia

ABELGORRI-OKELAREN EUSKO LABELA

Kalebarren, 14 ANTZUOLA Tf. 76 62 90



# Futbol taldea gertu liga hasteko



*Errejonaleko lehen mailako taldea, zapatuan Aixola futbol zelaian.*

**Denboraldia** hasi aurreko bi partiduetan emaitzak aldekoak ez izan arren, errejonaleko lehenengo mailan jokatu duen Antzuolako Kirol Elkar-teak (AKE) gogoz hartu du ligaren hasi-

era. Kanpoan izango da lehenengo erronka Zumaiako taldearen aurka, zapatuan arratsaldeko bostetan.

Izarren ligan baino apalago bada ere, antzuolarrek fitxajeak negoziatzen jardun dute. Aurtengo denboraldian Pako Kabrera izango dute entrenatzaile, Mikel Larrañagak Eibarko taldearekin fitxatu baitu. Jokalari berriak ere egongo dira taldean, jubeniletatik goreneko taldera pasako diren jokalariai hartu dituelako bere kargu Pakok. Gainera, ez dirudi gaizki egingo dutenik, joan zen larunbateko partiduan Urola taldeari sartutako gol bakarra jubeniletan jokatzen zuen Lander Arinek sartu baitzuen.

Hamabost bat lagunez osatuta egongo den talde titularrean 16 urtetik 31 urte arteko jokalariai arituko dira. Berrien freskotasunean eta zaharragoen esperientzian oinarrituko da, beraz, AKEko lehen taldea.

Bestalde, jubenilen liga hasi barik egon arren, hauek ere entrenatzen hasiak dira entrenatzaile berriarekin: Andoni Azkargorta.

## Meningitisaren kanpaina

Irailaren 15ean hasiko da Deba Garaian meningitisaren aurkako kanpaina. 18 hilabeteko umeekin hasi eta 20 urtera arteko antzuolarrak sartzen dira txertaketa kanpaina honetan. Gaztetxoek txertaketa eskolan bertan jaso ahal izango dute; baina 12-20 urtera artekoek ambulatorki joan beharko dute datorren astelehenera aurrera. Hala ere, eskolako umeak astelehenean barnetegira joango direnez, astebete beranduago jasoko dute txertoa.

## Espejo eta Zuazuko barnetegietara

1. mailatik 3. mailara arteko haurrak Espejoko barnetegira joango dira hilaren 16an. Lehenengo egunean bisitaldia egingo dute Balderejoko parkera eta iluntzean sartuko dira barnetegian, ostiralera arte. Lagarren mailatik 6. mailara artekoek, berriz, Zuazura joateko aukera izango dute. Egun bat lehenago joango dira, 15ean, hain zuzen.

## Odol emaleei deia

Lau hilabete behin tokatzen zaie antzuolarrei odola ematea eta datorren asteazkenean, irailaren 17an, izango da aurtengo azken odol bilketa. Antolatzaileek diotenez, jende dexente elkartzten da aldi bakoitzean, gutxi gora behera laurogei bat lagun. Oraingoan ere batezbestekoa betetzea espero dute eta horretarako Kaixon izango dira arratsaldeko seietatik aurrera.



## HBren batzarra

HBko mahaikideen aurkako epaiketen inguruan arituko dira azteazkenean, hilak 17, arratsaldeko 8eta, udaletxean.

## erabaltzeko gertu

Bukatzeko, mila esker proiektu hau aurrera ateratzen laguntzen diguzuen guz-tiei; ea ba, benetako herri-aldizkaria izate-lortzen dugun! Horretarako, badakizue nahi duzuen guztietan parte har dezakezuela, kontu interesgarriak zeuentzako gorde beharrean guri kontatuaz edo hamabostean behin egingo ditugun bilertan parte hartuaz, edo beste mila modutara; denon artean, auzolanean, KONTUOLA askoz aberatsagoa eta interesgarriagoa egingo dugu eta.

Zuen zain gaude.



Bidea eginez

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-urreztea
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

Tailerra  
Uzarraga bidea, 10  
Tf. 78 71 78

Erakusketa  
Kalebarren, 1  
Tf. 78 71 79  
Tf. eta F. 76 64 73



# Tomas eta Kontxi

## Baserriko produktuak saltzen

Antzuolarren artean ere, dexente zabaldua dago San Martinetako feriara joateko ohitura. Sasoiko fruitu zein barazki freskoak erosteko aukera paregabea izaten dute bertara gerturatzen direnek; horrela uste dute, behinik behin, Bergaran ospatzen den fruitu eta barazki lehiaketako azken urteetako saridunek.

**K**ontxi Izagirre eta Tomas Larrañaga izango dira San Martinetako feriara joango diren antzuolarrak. Azkenengo urteetan, eurak izan dira herriko produktuak ezagutarazten jardun dutenak. Tomasek dioenez, "oso harre-*ra ona izeten dogu, batez be basarritarrak gutxi garelako, bai hemen eta bai Bergaran; eta gaiñera basarritarrak oso ondo tratatzen gaitue*".

Lapatza baserriko Tomasek azaldu digunez, "nekazaritza ekologikua erakustia izen zan gure asmua gehixen bat, baiña presentau giñanetik irabazten goiatz, sei bat urtian edo"; Kontxi Izagirrek, Bidaurre baserrikoak, berriz, ezin du gogoratu San Martinetako feriaro lehiaketan jasotako sari kopurua; zazpi edo zortzi sari jaso dituztela uste du, baina, hala ere, Kontxi dio "sarixagatik ez gara juten, lagundu egitten dau, baiña sarixagatik bakarrik eztau merezi lan hori hartzeik".

Bi baserriar hauen ustez, San Martinetako feria sasoi nahiko onean ospatzen da; "batzuk, orain bi-hiru urte, Erremu Zapatura aldatu nahi izen zeber ferixia, baiña atzera egin bihar izen ze-



Kontxi Bergarako azokan.

ben, sasoi horretan eztagolako ezer edo ixa ezer erakusteko, ezta saltzeko be "; Tomasek adierazi digunez, noberraren barazkien propaganda egiteko aukera ederra da, jende asko ibiltzen baita eta horrela "ezagutu egitten gaituzte".

### Eskaintza zabala eta berezia

Ezagunak dira jadanik Antzuolako baserrietako produktuak Bergaran, baina urteak urtera, zerbait berria edo ezberdina aurkezten ere saiatzen dira Kontxi eta Tomas. Barazki aldetik, aurtengo uzta oso ona ez izan arren, Lapatzakoak dioenez, 40 produktu ezberdin baino gehiago izango ditu bezeroentzat: eskarolak (lau bat klase), babak (hiru bat mota), kalabaza eskaintza zabala eta aurren oso ederrak hazi diren piper morroiak, italianoak eta lila

kolorekoak. Bidaurrekoa ere bat dator Tomasekin produktu kopuruaren eskasian aurtengo uztan "iaz askoz sagar gehixao egon zan eta meloiak eta sandiak be izen giñutzen". Dena dela, ho-

gei sagar mota izango ditu feriako mahaletan, madari, okan, pikku; mahats, kiwi, brisku, intxaur eta girasol pipa artean, besteak beste.

Aurtengoa uzta onenetakoa ez bada ere, Tomasek dioenez "gero gauzak pixkat konpensatzen dira eta geizki irtetzen jatzuna barazki batekin, beste

batzukin ondo irtetzen jatzu". Horrela, Lapatzan pipar morroiak oso haundiak etorri dira eta Bidaurren melokotioiak hazi dira.

### Nekazaritza gazteen eskutik

Badira Antzuolan etxeko nekazaritza diharduten gazteak. Haritz eta Iker Irizar, Kontxiren bi semeak, Bergaran izango dira zapatuan bezeroekin tratuak. Haritzek dioenez, zahar batzuekin izaten dituzte gora-beherak sagar mota bat edo beste dela eta, "ezagutzen ditue lau edo bost sagar eta pentsatzen dabe eztaola besteik, eta batzui etxakue gustatzen zu gaziagua izenda erak baiño gehixao jakittia". Hala ere, Bergaran izango dira zapatuan euren produktuekin, urteak aurrera joan ahala, produktioak berak ere aurrera egiten duela erakusteko.

■ ■ ■ Oso harrera ona izaten dogu, batez be beserritarrak gutxi garelako ■ ■ ■

**KONTUOLA Kazetaria:** Marijo Deogracias **Erredakzio kontseilua:** Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga, Miren Anduaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 76 65 08, Herri ikastetxea

## LARREA

### TABERNA

Kale Barren, 17  
ANTZUOLA

## GOROSTI

### Taberna

☎ 76 62 96  
Zurrategi Plaza ANTZUOLA

GAILUR  
taberna eta  
gozotegia



Bustinzuri, 13 ANTZUOLA Tf. 78 70 32



**Ikasi  
euskara  
errazago!**

**Euskara ikastea  
garestiegia dela?  
Aurten ikastaroak  
ordaintzea errazagoa  
izango da:  
dena batera  
ordaindu beharrean  
**hilez-hil ordain dezakezu!**  
Euskadiko Kutxak  
finantzatuko dizu  
AEKko matrikula.  
Adibideak:**

matrikula

Euskadiko Kutxarekin finantziatuta

9 hilabete 10 ordu klase astean

42.900 PTA

4.897 PTA/ hilean (9 hilabetetan)

9 hilabete 15 ordu klase astean

62.400 PTA

7.123 PTA/ hilean (9 hilabetetan)

9 hilabete 8 ordu klase astean

35.100 PTA

4.007 PTA/ hilean (9 hilabetetan)


Negu barnetegia (4 hilabete)

44.100 PTA

20.135 PTA/ hilean (9 hilabetetan)

**Beste ikastaroren bati buruzko informazioa  
behar izanez gero, galdetu euskaltegian**



  
**CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA**




## San Martinetako danborradan parte hartu duzu sekula?



**Jesus Maria Fernandez**

Bai, 14 urterekin edo hartu nuen parte. Oraindik ere ahal badut gustatzen zait danborrada ikustea. Ez dut uste indarra galdu duenik.



**Eloy Fernandez**

Ez, sekula ez dut parte hartu. Gustatzen zait danborrada eta ahal izanez gero, ez dut ikusteko aukera galtzen. Gero eta hobeto dagoela uste dut.



**Nekane Alvarez**

Kanpokoia naiz eta ez dut sekula parte hartu. Hala ere, haurren danborrada ikustera joaten naiz. Nagusiena gauez denez eta kanpoan lan egiten dudanez...



**Arantxa Muñoz**

Bai, aspaldi hartu nuen parte behin Umore-Onako abanderatu modura. Orain ere joaten naiz ikustera eta gustatzen zait. Beharbada, indarra galdu du eta ordua ez da egokiena.



**Maria Dolores Romero**

Ez, inoiz ez dut aukerarik eduki. Aukera izanez gero, beharbada parte hartuko nuke... Urtero ikusten dut eta gero eta hobeto dagoela esango nuke.



**Jose Luis Arreseigor**

Ez, ez dut aukerarik izan danborradan parte hartzeko. Gustatzen zait, baina aurten ezin izango dut ikusi kanpoan egongo naizelako. Hobera doala uste dut.

## 97-98 IKASTURTEA MATRIKULA ZABALIK

### INGELES

- Ingeles orokorra, maila guztiak.
- 4-6 urtekoentzako hasierako taldeak, astean bi ordu. Eguerdian zein arratsaldean.
- Cambridge-ko azterketetarako prestakuntza taldeak, gazteentzat. Arratsaldeko 4retan eta 6:30etan.
- Enpresentzako klaseak: ingeles tekniko eta komertziala.
- Banakako klaseak.

### ALEMANA


- Aleman klaseak, maila guztiak: ume, heldu zein enpresentzakoak
- Goethe Institut-eko azterketetarako prestaketa.

LA PUERTA AL



INFORMAZIOA: Burdiñate, 5 Bergara Tf. 76 30 01





## Eskola porrota

Ikasturte berri bat hastear dagoen bakoitzean kezka berdina izaten dut: zenbat ikasle egingo dute porrot? Zenbat geratuko dira erdibidean? Nik uste, azken urteotan gizartean egon diren aldaketek eskola porrotean zerikusi haundia dutela. Jakin bada-kigu lehen ere eskola porrota bazegoela, baina bere ondorioak ez ziren gaur egun bezain itzelak. Lehen eskolatik kanpo geratzen zen ikasle batek ez zuen inolako arazorik lana topatzeko. Gaur, berriz, oso zaila da lan bat aurkitzea prestakuntza minimo barik eta etorkizunaren atek ixten zaizkio hainbat gazteri. Kez-kati gaude benetan irakaskuntzan erantzukizuna dugunok (ira-kasleak, gurasoak eta ikasleak) gaur egungo egoera ikusita.

Gizarte estrukturek aldakuntza haundiak ezagutu izan dituzte (oso denbora laburrean gainera) eta irakaskuntzan erabiltzen ditugun metodoak agian ez dira gaurko egoerak behar dituen bezain egokiak. Askotan ematen du eskolak eta gizarteak joku desberdina egiten dutela.

Maila handi batean programazioak eta beraien edukinak ez dute ikasleengan interesik sortzen. Beharbada ez da metodologia egokia, interesgarria eta bultzatzailea erabiltzen eta horrela oso nekeza da irakastea eta ikastea. Ikasleen ustetan ezin dituzte ematen zaizkien datu guztiak asimilatu, ez dute jakinmina lan-tzen eta hau gutxi balitz, ez dute gerorako baliotasun bat ikus-ten.

Gaur egungo eskola saiatu behar da irakaslearengan estu-dioekiko premia iraunkorra sortzen, ikasten erakusten saiatu be-har da. Izan ere, irakaskuntzan ematen ari den erreformak hezi-keta kalitatea hobetu nahi du eta porrot egiten dutenez kopurua gutxitu, baina horretarako ikasle, guraso eta irakasleen ahalegi-nak ezinbestekoak izango dira, agintariek duten erantzukizuna ahaztu gabe.

**Eugenio ALLES**



## Zeanuriko udalekua

Ikasturte berriaren atarian eztabaida ustela bezain kalte-garria jasan behar izan dugu. Zeanuriko udalekuak direla tarteko, sortu da inoiz sortu behar ez zen polemika. Eta oraingoan ere euskara tartean jarri nahi izan dute. Huskeria batek eta perso-naia publiko batek izan zuen hanka sartzeak komunikabideei pa-gotxa eman die askara. Zeanuriko udalekuan, euskara hitz egi-ten ez zutenek sekulako zigorra jaso omen dute, motxila harriz beterik ibili behar izan dutela eta horrelako gauzak.

Beno ba, Zeanuriko udalekuan jazo dena, edozein udaleku, ikastola, eskola eta antzerakotan egiten diren ekintza arruntak izanik egundoko zarata eta hauts piloak jaso eta sekulako kaka usaina barreiatu du.

Baina nor da erruduna? Beharbada jende asko ez zen ohar-tuko baina Bizkaiko Diputazioko Kultur ditutatuak, Tomas Uribe-txeberriak, arazo hori zela eta izan zuen agerpenean egindako adierazpenak dira sua piztu dutenak: "udaleku horretan gertatu-takoa oso grabea da. Hurrek garbi hitz egiten dute, natural, eta esaten dutena egia izaten da. Nik guztia sinesten diet. Ez dut monitoreekin hitzik egin baina hurrek salatu dutena egia izango da". Jakina, adierazpen horiek entzun besterik ez, toki guztietan agertzen ziren kekak eta denuntziak. Izan ere, ahoa asko zabal-du behar da tamaina honetako potolokeriak eta lelokeriak plaza-ratzeko!. Benetan leloa eta arina izan behar da ezer jakin gabe modu horretan berba egiteko.

Uribetxeberria jaunak jaurti dituen zentzu gabeko ahokadek egin duten kaltea izugarria da. Errudun nagusia diputatu jauna da. Aurrerantzean, behar duen neskatila-mutikoari, txatxamurka-da txatxar pedagogikoa emateko beldur izango gara. Euskarari kalte haundia egin zaio. "Lehen gutxi bagina oraindik amona hardun".

**Andres OSA "SAKONA"**

## BINGEN DE PEDRO



erakusketa  
NAHIKARI taberna  
Masterreka, 20 Tf. 76 57 71

## FRANTSSES IRAKASKUNTZA

# 97-98

## ikasturtea

Izena emateko epea:  
irailaren 30era arte.

**Informazio gehiago:**

Mizpildi, 3 1. ezkerre. Bergara.  
Tf. 76 30 55  
Ordutegia: 10.00-12.00 eta 17.00-19.00







■ **Xabier Zubizarretari despedida**

Zapatuan Xabier Zubizarreta apaizaren despedida afaria egin zen Antxon jabetxean. Zubizarretak 14 urte egin ditu Bergaran apaiz lanetan eta iraila bukaeran Eibarreko San Pio X.aren parrokiari hasiko da lanean. Zapatuan 115 lagun bildu ziren Antxonin Xabier agurtzeko. Arratsaldean meza eman ondoren, Santa Marinako parrokiako **ordenagailu bat** eman zioten opari modura. Ondoren, giro ezin hobean, afaria egin

zen eta afalostean talde batek Zubizarretaren omenezko kantu batzuk eskeini zituen. Datorren irailaren 21ean, eguerdian, Xabier Zubizarretak eta bere ordezkariak etorriko den **Xabier Azkoitia apaiz urretxuarrak** elkarrekin emango dute meza Santa Marinan.



■ **Gaztetxoak Garaion**

Jardunek eta Udalak martxan jarritako "Antxitxika" programaren barruan, 2. mailatik 6.era bitarteko 20 ikasleek astebeteko egonaldia egin zuten aurreko astean **Garaion, Araban**. Bertan izandako

2. mailatik 5.era bitarteko ikasleak aurten euskara errefortzuetan ibili dira eta 6. mailakoak, berriz, aurten B eredutik D eredura pasatuko dira. Begirale lanetan Nekane Gabilondo, Ane Iturralde, Alazne Pardina, Ane Miren Zabala eta Iñaki Alonso aritu dira. **Otazako baserri batean** egon dira denak iraileko lehen astean eta lagunartean jolasak, irteerak eta bestelako ekitaldiekin primeran pasatu dute. 6. mailakoak finago ibili dira matematika eta euskara klaseak ere izan dituztelako egunero. Ikasturtean ondo ibiltzeko aurrendenboraldia ezinbestekoa...

Era guztietako marrazki, argazki, letra eta abarrak kamiseta, sudadera edota nikietan inprimitzen ditugu, zuri-beltzean zein koloretan. Fotokopiak koloretan. Futbol, saskibalo edota ziklismoko kamisetetan letra, zerbakiak edo dibujoak jartzten ditugu. Publizitate artikulua: boligrafoak, metxeroak, gorrak, agendak...

San Lorenzo, 7 behe. ☎ 76 50 39

Irizar, 2  
☎ 76 14 95

**JAUJA KIROLAK**

BEREZITASUNAK  
BIZKOTXOAK  
ERRELENOAK  
TOSTOIAK

**MUJIKAZOZTEGLA**

Artekale, 3 BERGARA  
☎ 76 10 34



**■ Oihulari Klown Tarregara**

Oihulari Klown bergarar taldeak eguastenean hasi zen **Tarregako antzerki jaialdian parte hartuko du** aurten. Jaialdi honen 17. edizioan 350 antzerki emanaldi inguru izango dira eta Oihularik **“Lerroan bixi-bixian” (“Traemos cola”) bere azken lana antzeztuko du** domekan, ordu batean eta arratsaldeko zazpi t'erdietan. Jaurlaritzako Kultura Saila ordezkatzuz 6 antzerki talde joango badira ere, Oihularik bere kontura hartuko du parte Tarregan, Txo Titeres eta Golden Apple Quartet taldeek egingo duten moduan. Euren ohizko umore finarekin, Oihularikoek, telefono kabina batetan sortzen den jende ilada aitzakitza hartuz, komunikazioaren inguruko erreflesioak landu dituzte oraingoan. Ziur ikusle ilada luzeak ekarriko dituztela...



**Zertan dihardute ba?**



**Ainhoa Agirreazaldegia**

19 urteko bergarar bertsolariak Zarautzeko Lizardi bertsolari gazteen txapelketako finalean parte hartu zuen eguakitzean. Ainhoa ezin izan zuen 1995ean irabazitako txapela berreskuratu, Alfontso Jimenez tolosarrak lortu baitzuen garaipena. Bigarren saria eta bertsorik onenarena Ibon Karrera elduaindarrak eraman zituen. Hasierako kanporaketan parte hartu zuten 14 bertsolarietatik zortzik lortu zuten finalerako txartela. Ainhoa bihar 22:30etan Novedadesen izango den bertso jaialdian parte hartuko du.



**■ Ikuskizun klasikoa**

Urtero hutsik egiten ez duen ikuskizuna izan zen joan zen eguakitzean Bergarako kaleetan. Eguerdian, organillo bateko doinuak

**ahuntzaren aktuazioa** iragarri zuen Barrenkalean eta berehala kaleko dendariak eta bertatik pasiatzen ari ziren herritar dexentek ere kuriositate handiz argazkiko hirukotearen emanaldia ikustera bildu ziren. Ahuntzak, hezitzailearen aginduetara eta musikaz lagunduta, eskilara ganean oreka mantentzeko hanka bakar batekin nahikoa duela erakutsi zuen. Txanpon batzuk irabazi ahal izateko kaleko ikuskizun klasikoa hau...

  
**LIZAR**  
**ALTZARIAK**  
 Dr Fleming, 5 ☎ 76 16 53

**ZUBIETA**  
**elektragarintza**  
**MOTORREN BOBINAKETA**  
**ERA GUZTIETA KO INSTALAKUNTZAK**  
**Kruz Galastegi, 2 behe**  
 ☎ 76 23 48


**ARGI PLASTIC**  
 PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...  
 Leihoak, atek, manparak...  
**Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik**  
  
 Erakusketa: Masterroka 14, behea BERGARA  
 Tfnoa: 76 55 02 Faxes: 77 11 30



# Jabier Linazisoro

**Orain dela 15 bat urte arkabuz bat eskuan izan zuenetik abankargazko armekin zaletu zen Jabier Linazisoro. Zapatu goizean aintzinako armen San Martin txapelketaren VII. edizioa jokatu da Gorlan.**

- Tiratzeko epokako arropekin jantzita joan beharra dago?
- Ez, baina batzuk horrela joaten gara, saltsa gehiago egon dadin.
- Ze jantzi erabiliko duzu bihar?
- David Crocket-ena. Indioen laguna zen hura, nire moduan...
- Etxean zer esaten dizute horrela ikustean?
- Piskat kaskauta nagoela.
- Zenbat arma daukazu etxean?
- Mordoxka bat.
- Zenbatero garbitzen dituzu?
- Erabilitako guztietan. Nahikoa lan ematen dute.
- Nekeza da armok lortzea?
- Orijinalak lokalizatzea oso zaila da, baina kopiak egitea ez hainbeste.
- Afizio gehien, non?
- Alemania. Iparramerikan ere urte guztian zehar egin daiteke ehizan abankargazko armekin.
- Pistolak ala eskopetak?
- Eskopetak, pistolak ere oso politak dira.



*“Tiratzaile ona izateko entrenamendua eta afizioa behar dira; ehizaren aldekoa naiz, baina eskopeteroen kontra nago. Kotxe pilotuen artean, Fangio eta Senna onenak”*

- Zein garaiko armak gustatzen zaizkizu gehien?
- Piratenak.
- Hobby garestia da?
- Kopiekin ibiliz gero, ez. Deporte moduan oso polita da gainera.
- Zer behar da tiratzaile ona izateko?
- Entrenamendua eta afizioa.
- Punteria onekoa zara?
- Bastante ona...
- Etxean platerrik apurtu duzu sekula?
- Fregaua egiterakoan edo...
- Ehizaren aldekoa zara?
- Bai, baina ez eskopeteroen aldekoa.
- San Martinetako danborradan parte hartu duzu sekula?
- Bai, lehen tanborradetan Umore Onakoekin irtetzen ginen.
- Zela ospatzen duzu San Martin bezpera?
- Etxean normalean.
- Sidecar-arekin ibiltzen zara?
- Bai, udan batez ere.
- Formula 1a ala motor lasterketak?
- Biak. Belozidatea ikaragarri gustatzen zait.
- Gidari bat?
- Fangio eta azkenengoetatik Senna izan da onena.
- Lady Diren entierria ikusi zenuen?
- Ezta Algerian akabatzen dituztenenak ere...
- Bibotea, noiztik?
- Orain dela 35 bat urtetik daukat.

**97-98 IKASTURTEA**

**INGELES A**

**FRANTSESA**

**ALEMANA**

**MATRIKULA epea irailaren 2tik 26ra**

**INFORMAZIOA: Bergarako UNED (3. pisua) Tf. 76 06 87 Bulego ordutegia: 10-13 eta 16-20**

**Ikasturtearen hasiera, urriaren 1ean.**

- Talde txikiak.
- Maila guztiak.
- Adin guztiak: gazte, heldu eta...
- UMEENTZAKO HASIERA IKASTAROAK (6urtetik aurrera).
- Azterketa ofizialen prestakuntza.
- Hiru hilabeteko ikastaro trinkoak
- Goizez, eguerdiz eta arratsaldez.





**ETXEBIZITZA**

**Pisua** salgai Dr. Fleming kalean. ☎ 76 56 99.

**Pisu** amueblatua salgai Osintxun. Prezio onean. ☎ 76 36 61 (arratsaldez).

**Pisu** amueblatua salgai. ☎ 76 49 30 (gauetz).

**Pisu** txiki bat alokairuan hartuko nuke. ☎ 76 04 57.

**Garajea** alokairuan Ibargarain. ☎ 76 13 86 (gauetz).

**Garajea** salgai Masterrekan. ☎ 76 24 57.

**1997-98** kurtsorako pisua behar da. ☎ 76 03 53.

**Pisua** salgai Masterrekan. Berriztua. ☎ 76 08 67.

**Garajea** saldu edo alokatzen da Santa Marinaran. ☎ 76 47 27.

**Garajea** saldu edo alokatzen da San Lorentzon. ☎ 76 58 28.

**Garajea** alokairuan Matxiategin. ☎ 76 16 38.

**Pisua** alokairuan hartuko nuke Bergaran. ☎ 76 06 16.

**Pisua** salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 23 84.

**Pisua** salgai Aranerrekan. ☎ 76 42 65 (gauetz).

**Garaje** bikoitza alokairuan Ibargarain. ☎ 76 57 69.

**Pisu** bat alokairuan hartuko nuke. ☎ 76 59 54.

**DENETARIK**

**Vitus** bizikleta salgai. ☎ 76 08 21 (20:30-22:00).

**Ford Orion** kotxea (1.6 D) salgai. ☎ 76 71 12.

**Bi lagun** behar dira Gasteizen pisua osatzeko. ☎ 76 28 17.

**Gasteizen** pisua osatzeko bi neska behar dira. ☎ 76 47 70 (Onintza).

**Renault 5 GT** Turbo kotxea salgai. ☎ 76 57 87.

**Yamaha Virago** 1100 motorra salgai. 4.000 kilometro. ☎ 76 57 69.

**Astebarruan** pisua osatzeko lagun bat behar da. ☎ 76 59 08.

**Burgosen** pisua osatzeko ikaslea behar da. ☎ 79 28 05 (Onintza).

**Windsurf** egiteko taula salgai. ☎ 76 47 71.

**Yamaha** Diversion motorra salgai. ☎ 76 36 03 (loseba).

**Peugeot Scooter** motorra salgai. ☎ 76 41 65.

**Tabernako** makinan erabiltzeko, duro berriak zaharren truke. ☎ 76 20 07.

**Aulki ergonomikoa** oparitzen dut. Egoera onean. ☎ 76 08 92.

**Zibrokamin** estufa salgai. ☎ 76 39 25.

**LANA**

**Neska** eskeintzen da haurrak zaindu eta etxeko lanetarako ☎ 75 17 43 (Rakel).

**Neska** bat behar da etxeko lanak egin eta heldu bat zaintzeko. ☎ 76 61 85.

**Haurrak** zaindu eta etxeko lanak egiteko neska euskalduna behar da. ☎ 76 09 24.

**Klase** partikularrak ematen ditut. ☎ 76 30 35.

**Etxeko lanak** egingo nituzke. ☎ 76 13 46.

**OHO** eta BBBko klaseak ematen ditut. ☎ 76 33 26.

**Haurrak** zainduko nituzke. ☎ 76 04 34.

**Ingeles** klaseak ematen dira. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Haurra** zaindu eta etxeko lanetarako neska euskalduna behar da. ☎ 76 05 30.

**Sukaldari laguntzailea** eskeintzen da. Esperientziarekin. ☎ 76 00 90 (Orlando).

**Emakume** euskalduna behar da etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko (5 orduz). ☎ 76 27 76.

**Windows 95** (Word eta Excel) programako irakaslea behar dut. ☎ 76 06 87.

**Mate**, fisika eta kimika klaseak. ☎ 76 20 04.

**Ingeles** klaseak ematen dira. ☎ 76 23 67/76 22 90.

**UBI**ko marrazki teknikoko maisua behar da. ☎ 765167.

I G E L T S E R I T Z A

I G E L T S E R I T Z A

**BLAK, S.L.**

Flaming doktorea, 5  
BERGARA  
Mobilak:  
907 44 50 38  
907 46 57 38

- \* BRIKOLAJEA
- \* TAILA
- \* ESKULANAK
- \* KOADERNAKETA
- \* MODELATZEA ETA ZERAMIKA
- \* KONPOSIZIOA (LORE LEHORRAK)
- \* MARRAZKETA ETA PINTURA

ikastaroak

Informazioa:  
Ardatza brikolajea

- \* BOLILLOA
- \* GANTXILOA
- \* GURUTZE-PUNTUA
- \* EHUNA ETA MAKRAMEA
- \* FRIVOLITEA
- \* BAINIKA ETA BORDATUAK

ikastaroak


informazioa:  
Igartza mertzeria eta Phildar



# Bertso jaialdia

**Irailaren 13an, larunbata,  
gaueko 10,30etan  
NOVEDADES ARETOAN**

Aldez aurretik:  
800 PTA  
Takilan:  
1000 PTA



• Landa aita-semeak trikitilariak

- BERTSOLARIAK:
- Ainhoa Agirreazaldegi
  - Ion Sarasua
  - Mañukorta
  - Peñagarikano
  - Eguzkitze

Gai jartzailea: Joxerra Gartzia  
... eta

Oihulari Klownekin  
Bertso Klownak

Antolatzailea:



## SHOTOKAN KARATE-DO

- Joxean Iñarra
- Aitor Delarriberete
- Mikel Arakistain

2. DAN Shotokan G. B.  
Shotokan Gerriko Beltza  
Shotokan Gerriko Beltza

### KARATEA IKASI NAHI DUZU?

*Karate Shotokan taldeak  
honako hau eskeintzen dizu:*

- Ordu eta erdiko entrenamenduak (18.00-19.30) astelehen, asteazken eta ostiraletan.
  - Talde txikiak, gehienez sei lagun gradu eta mailako.
  - KEuskal Karate Federazioaren barruan egotea
  - ...eta kirol honetako profesional bat izango duzu
- entrenatzaile: Joxean Iñarra

Hezkuntza fisikoan lizentziatua  
Karateko gerriko beltza 2. Dan-a  
Ninjitsu gerriko beltza 2. dan-a  
Karate entrenatzailea  
Ninjitsu entrenatzailea  
Karate-epailea  
eta, gainera, Karateari buruzko material  
didaktikoa gertatzeko Deba Garaia  
mankomunitatearen beka lortu berria duena

Gurekin harremanetan jartzeko deitu 76 07 21 telefonora  
21.00 eta 22.30 artean edo zatoz Miguel Altuna berriko  
gimnasia entrenamendu-ordutan. Hilaren 17an hasiko gara!





# San Martin jaien ostean hasiko da futbito txapelketa

**Labegaraietako** futbito txapelketa hurrengo asteburuan hasiko da eta 4 taldetan banatuta 46 talde arituko dira.

Lehenengo multzokoek bi itzulira jokatuko dute eta bertan erabakiko da txapelketaren irabazlea. Gainontzeko hiru multzoak zozketa bidez eratu dira eta lehenengo itzulia jokatu ondoren, lortutako postuen arabera beste hiru multzotan banatuko dira bigarren itzulia jokatzeko: lehen itzulian goiko postuetan sail-

katzen direnek multzo bat eratuko dute, erdialdean geratzen direnek beste bat, eta behean sailkatutakoek azkena.

Bestalde, oraindik dokumenturen bat falta zaien taldeei irailaren 30erainoko epea emango zaie eskatutakoa betetzeko. Ordurako falta zaiena eramatzen ez badute, txapelketatik kanpo geratuko dira.

Bukatzeko, esan dezagun aurten talde federatua atera dutela Lagunak elkarteok.



Lagunak Elkarteak futbito talde federatua aterako du.

## Lehenengo Maila

AGIÑASPI  
ARLOTEAK OILAGORRA  
A ZE FLAXA ETXAGI  
AZPEITXI JATETXEA  
BAR CANALEJAS  
BILDURBAREK OPEL/LAM  
ERROTAGAIN  
ETXAGI  
JAUJA OH ZEREZOS  
MONGATXURRAK  
ORTZI  
PAGOMENDI

## A multzoa


AGIRREBEÑA JATETXEA  
ALDOKA MALDOKA  
EZINLEIKE  
GANBARA  
IGANDEKOAK  
INDARGORRI  
KAIXO  
MANITOU  
MOSKIS  
MRW  
POLIDEPORTIVO TABERNA  
SHAKTALE

## B multzoa

AMILOTX  
AMOKIBAR  
ARTUSAMAK  
AUTOBEREZI  
BAYER  
ERDIBITERRAK  
PATXARAN TEAM  
SLO  
TXIPIRON  
USOA  
UVE BIKOITZA

## C multzoa

ERI  
ETENGABE  
FAC  
GUADALEST  
KOMANDO PIPERRAK  
LA JUVE  
LA PEÑA DIOS ME LIBRE  
MATXAKATEGI  
NEKROFIKOS  
PATATUS  
UFALA



## Ane Miren Fernandez Estatuko gimnasta onenekin izan da Marbellan

Ane Miren Fernandez Ariznoa gimnasia erritmiko taldeko 12 urteko kirolaria Estatuko gimnasia federakuntzak Marbellan antolatutako kontzentrazioan izan da. Fernandezek uztailean Bartzelonan jokatuak Estatuko txapelketan maila ezin hobea erakutsi zuen eta estatu osoko beste 36 kirolarirekin batera abuztuan zehar Marbellan entrenatzen ibili da.

Fernandezek adierazi duenez esperientzia polita izan da eta orain Marbellan izandako entrenatzaileek bere klubarekin lan egiteko esan diote. Halaber, Ariznoa taldeak datorren denboraldirako matrikula epea zabaldu du. Deia 6 urtetik gorako haurrentzat da eta izena emateko hauetako taelefonoren batera deitu behar da: 76 52 05 (Mertxe) edo 76 32 08 (Margari).



# 1997-98ko BKEko futbol talde nagusia



## TALDE TEKNIKOA

**ENRIKE NIETO. ENTRENATZAILEA. 65-8-27**  
**LAURI ASKARGORTA. 2. ENTRENATZAILEA. 72-2-12**  
**LUIS HERZOG. ORDEZKARIA. 53-5-28**  
**IRENE UNZUETA. MASAJISTA. 74-6-28**

**Joan zen eguakitzean aurkeztu zen 1997-98ko BKEko futbol talde nagusia eta zapatuan egingo du debuta Agorroren. Taldeko jokalaria aurkeztu dizkigu Enrike Nieto entrenatzaileak. Hona hemen jokalaria bakoitzaren izena eta abizena, postua, jaiotze data eta berari buruz entrenatzaileak esandakoa.**

## Banan-banan

### Markel Egaña. Atezaina. 76-10-26.

"Ate azpian ondo kokatzen da eta eta goitik datozen baloietan ondo dabil. Indarra eta kontzentrazioa jokoan. Agintzen daki".

### Ekain Manso. Atezaina. 77-12-9.

"Kokapen ona dauka eta ondo daki luzatzen. Kontzentrazio ona eta agintzen daki".

### Enaut Unamuno. Atzelaria. 77-6-8.

"Gogorra da eta ez da konplikatzan. Eskumetik jokatu arren, ezkerrekin ere ondo jotzen du baloia".

### F. J. Rodriguez "Piti". Atzelaria. 70-11-27.

"Borrokalaria, goitik ondo doa, hegaletik ondo igotzen du eta baloia luze ondo jokatzen du. Taldearen izpiritua ordezkatzen du".

### Ion Ander Gallastegi. Atzelaria. 75-11-30

"Ondo jokatzen ditu baloi luzeak eta baloiak moztzen ondo aritzen da bai behetik eta baita goitik datozen baloietan. Serioa defentsan".

### Luis Blanco. Atzelaria. 75-6-29.

"Indartsua, azkarra eta jaurtiketa onekoa. Buruz oso ondo dabil eta hegaletik asko igotzen du".

### Asier Rodriguez. Atzelaria. 77-12-21.

"Borrokalaria da eta baloiak moztzen ondo aritzen da. Hegaletik ondo igotzen du eta ez du baloirik galdutzat ematen".

### Mikel Osoro. Atzelaria. 74-12-6.

"Jokatze gogo handia du eta kontzentrazioa erakusten du. Jokalari ia konpletua defentsan. Daukan esperientzia taldearentzat oso garrantzitsua izango da".

### Etor Laskurain. Atzelaria. 75-1-2.

"Ezker hegaletik gutxi igotzen dute hain ondo eta erasoan baloia kontrolatzen du. Hegaleko postuetara ondo egokitzen da".

### Gorka Zelaia. Atzelaria. 70-4-24.

"Postu ezberdinetan joka dezake. Erasotzen duen atzelaria eta defendatzen duen erasotzailea. Goiko baloietan ondo dabil eta baloia jokatuz ateratzen du".

### Aritz Ibarluzea. Erdilaria. 74-1-6.

"Bi hankekin ondo moldatzen da. Ondo ikusten du jokia eta berehala sartzen da partiduan".

### Iban Franco. Erdilaria. 78-5-3.

"Bi hankekin ondo jotzen dio baloiari. Baloi asko moztzen ditu zelai erdian. Indartsua eta serioa".

### Iñigo Iriarte. Erdilaria. 74-12-11.

"Ausarta eta langilea. Golegilea izan daiteke. Buruz, errematatzen eta baloiak moztzen ondo aritzen da".

### Jokin Mendaratz. Erdilaria. 77-5-22.

"Borrokatailea eta goitik ondo doa. Baloi asko lapurtzen ditu, pase onak ematen ditu eta txokean ez da kokiltzen".

### Iban Blanco. Erdilaria. 78-3-1.

"Hegaleko jokalaria, arerioa ondo lagatzen du atzean. Aurrendenboraldian sasoi onena hartu duen jokalaria".

### Gorka Davila. Erdilaria. 75-3-31.

"Ondo aritzen da buruz buruko jokaldietan. Aurkakoaren area askotan eta bildur barik zarpaltzen du".

### Harkaitz Arana. Erdilaria. 74-10-18.

"Jokalaria berria, baina onenen artean izango dena. Lesioagatik ezin izan du gauza handirik erakutsi".

### Gorka San Vicente. Aurrelaria. 79-2-11.

"Erregate ona eta beti dago gola egiteko prest. Area barruan odol hotzeko jokalaria da".

### Josetxo Lizarralde. Aurrelaria. 75-10-28.

"Potentzia eta teknika askoko jokalaria. Borrokalaria, ez du baloi bat galdutzat ematen. Jokalari ia konpletua".

### Igor Larrañaga. Aurrelaria. 77-2-18.

"Azkarra eta erregate eta ikutu oneko jokalaria. Erdiraketak ezin hobeto neurtzen ditu".


### Ion Gallastegi. Aurrelaria. 77-9-22.

"Ondo ikusten du jokia eta jaurtiketa indartsua du. Partiduko azken minutura arte borrokatzen du".

### Igor Errasti. Aurrelaria. 75-1-2.

"Zelaian beti daki non dagoen eta nora joan behar duen. Argia eta errematatzaile ona".

## GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu  
 Fraiskozuri plaza, 5 Tf. 76 41 50 BERGARA

## Paper pintatuak - Pinturak

# A. ZANGITU

ORDUTEGI BERRIA:  
 8.00-13.00 ETA 15.00-20.00

☎ 76 19 54 BERGARA  
 IRU: ☎ 79 11 71 ARRASATE



## KARTELDEGIA

## FUTBOLA

◆ **Bergara-Hernani**  
Lehen erregionala.  
Zapatua. 17:00. Agorrosin.

◆ **Bergara-Aretxabaleta**  
Lehen jubenila.  
Domeka. 11:15. Agorrosin.

## TALDE NAGUSIAREN URTE OSOKO EGUTEGIA

97-9-14. 98-1-11  
**Bergara-Hernani**

97-9-21. 98-1-18  
**Killimon-Bergara**

97-9-28. 98-1-25  
**Bergara-Urola**

97-10-5. 98-2-1  
**Tolosaldea-Bergara**

97-10-12. 98-2-8  
**Bergara-Aretxabaleta**

97-10-19. 98-2-15  
**Bergara-Antoniano**

97-10-26. 98-3-1  
**Lasarte-Bergara**

97-11-2. 98-3-8  
**Bergara-Urki**

97-11-9. 98-3-15  
**Zumaiako-Bergara**

97-11-16. 98-3-22  
**Bergara-Anaitasuna**

97-11-23. 98-3-29  
**Aloña Mendi-Bergara**

97-11-30. 98-4-5  
**Bergara-Segura**

97-12-7. 98-4-26  
**Orioko-Bergara**

97-12-14. 98-5-3  
**Bergara-Antzuola**

97-12-21. 98-5-10  
**Ilintxa-Bergara**

# Enrike Nieto

## Futbol taldeko entrenatzailea

**Enrike Nieto izango da lehen maila erregionalako Bergara futbol taldearen entrenatzailea. Joan zen urtean mailaz jeitsi eta gero, BKEkoak mailaz igotzeko faboritoen artean irtingo dira.**

**- Zer helburu dituzu bihar hasiko den denboraldirako?**

- Helburua igandero irabaztea da. Halere, futbolearen ezin dira helburuak zehaztu oso zaila delako. Futbolearen helburu bat jartzen baduzu, eta lehenengo hiru partiduak galtzen badituzu taldea lur jota geratzen da.

**- Biharko Hernaniren aurkako partidua zela ikusten duzu?**

- Ez dut oso ondo eza gutzen. Dakidan gauza bakarra Mendiluze, Eibar taldeko entrenatzaile izandakoa, dela taldeko entrenatzailea eta nahiko futbol eskola ona dutela. Ondorioz, partidu polita eta borrokatua izango delakoan nago.

**- Pozik zaude daukagun taldearekin?**

- Oso pozik. Hasieran beldur nintzen gauzak oso azkar egin zirelako eta taldea eginda eman zidatelako. Halere, azkenean lortu dugun taldea oso ona da.

**- Ez igotzea porrota izango litzateke?**

- Ez dut uste. Porrota igotzeko ez borrokatzea eta igandero ondo jokatzea eta irabaztea ez iritetzea izango litzateke.

**- Lesionaturik ba al daukazu?**

- Eñaut Unamuno eta Jokin Mendiartzat uztailetik daude lesionatuta eta Harkaitz Arana aurrendenboraldiko lehenengo partiduan lesionatu zen. Aste honetan Iban Blanco eta Iñigo Iriartek arazoak izan dituzte eta ez dakit bihar jokatzeko prest izango diren.

**- Zer moduz joan da aurrendenboraldia?**

- Maila handiagoko taldeen aurka jokatu dugu eta oso ondo aritu gara.

**- Hamaikako finko baten aldekoa edo jokalaririk aldatzearen al-**

**dekoa zara?**

- Hamaikako finko bat jartzea gustatzen zait. Halere, lesioengatik oso interesgarria da plantila luzea izatea. Deialdi bakoitzean 6 jokalarik kanpoan geratu beharko dira eta hori oso gogorra izango da. Baina ez dago beste aukerarik eta sasoi onenean daudenak aukeratuko ditut.

**- Taldea itxita dago?**

- Ez, 22 jokalarik gara eta fitxa bat libre dago horietako bat jubenil batena baita. Ramon Agirrezabal atzelariaren zain gaude.



"Oso talde ona daukagu aurten".

**"Helburua domekero irabaztea eta ondo jokatzea da"**





Argazkia: Tere Garamendi

## San Martinetako danborrada, 1977

**S**an Martinetako ekitaldirik azpimarragarriena danborrada da, suzko erroberekin batera. Egia da sasoi batean herritarren artean askoz ere ikusmin haundiagoa sortarazten zuela eta danborradan parte hartzeko irrikatzen egoten zirela, batez ere erreginarena eta ohorezko damena egin behar zutenak. Halere, gaur egun ere San Martin jaietako ekitaldirik ederrenetakoa da. Aurten, gainera, San Martinen martirioaren 400. urtemuga betetzea da eta hauren danborrada, San Martin egunekoa, ohikoa baino politagoa eta jantziagoa izango da.

Aste honetako erretratu zaharrera orain dela 20 urteko danborradako argazki bat ekarri dugu. Bertan, orduko danborradan emakumez osatutako talde bakarra agertzen da, barrilerak, 16 bat urteko neskez osatua.

Honako hauek dira argazkian agertzen direnak, ezkerreko lerrotik hasi eta atzetik aurrera:

**Ezkerreko lerroan:** Miren Otaño eta Sara Azkarate.

**Erdikoan:** Ana Rosa Narbona, Izaskun Igartua, Izaskun Kintana, Beatriz Larrañaga eta Tere Garamendi.

**Eskumakoan:** Arantzazu Egaña, ezezaguna, Valvanera Gil eta Nere Juaristi.

Industria  
hornikuntzak



Industriaren  
alde

### MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 79 47 89  
Santa Kruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08



## zumelaga

### JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZIN

San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21



**Bizikleta gustatzen bazaizu!**


# BICIPRECISIÓN IGARTUA

Inportatzaile eta banatzaile eskusiboa



**500m<sup>2</sup>, biltegi eta denda berria.**

Bizikletak:  
errepidekoak, MTBak,  
umeentzakoak,  
estatikoak, trialekoak,  
tandemak eta  
ziklo-krossekoak.




**Konponketak.**

Bizikleta garbiketa eta engrase zerbitzua.

**Erropa, eta era guztietako oinetakoak.**

Zubieta, 5-7, posta kutxa 9, 20570 Bergara.  
Tf. 76 11 21, faxa 76 06 75, mobila 989 76 11 21



Aprobetxatu oporrak  
GIDA BAIMENA  
ateratzeko

*Izena ematean  
%10eko beherapena  
Gazte Txartelarekin*

# ARRAÑAGA

## A U T O E S K O L A

Artekalea, 22 BERGARA / Tf. 76 16 63

Santa Ana ELGOIBAR / Tf. 74 10 11



# Truke Operazioa

## Zure ametsak trukatzen ditugu!



**koltxoi zaharra...**



10.000 Pta.

**eta 10.000 Pta. arte**

**deskontatuko**

**dizugu zure atsedeen**

**sistema berrian**

**FLEX**



## Eskeintzen dizugu

### Amets zoriontsuak



## Prezio hoberenean



Centro Hogar Muebles  
Zigarrola, 1 ARRASATE



Amuebladora  
Mondragonesa



a.eme. interiores  
Garibai, 1 ARRASATE